

Ekonomiako Osagarriak Gizarte Zientzietarako

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Oier Onaindia

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honen helburua, Ekonomiaren irakaskuntzan arituko direnei lanabesak eskaintzea da: **ekonomiaren didaktikari buruz** arituko gara. Hortaz, helburu nagusia ekonomiari eta enpresari buruzko oinarrizko kontzeptuak ematea da, irakaskuntza-metodologia aktiboak erabiliz (proiektuetan edo arazoetan oinarritutako ikaskuntza), ikasleek ikaskuntza autonomorako gaitasunak garatzeko aukera izan dezaten.

3. Konpetentziak

Ikasgai honek konpetentzia hauen garapena ahalbidetuko du:

- Oinarrizko konpetentziak:
 - CB8. Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, informazio osatugabea edo mugatua izanik, beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen.
 - CB10. Ikasleek ikasteko trebetasunak izatea, ikasten jarraitu ahal izateko, neurri handi batean beren kabuz edo autonomiaz zuzendu beharko duten moduan.
- Zeharkako konpetentziak:
 - CT1989 - Espezialitatearen eremuko berezko lengoia zientifikoa erabiltzea.
 - CT1991 - Irakaskuntzari balioa ematea eta garapen profesionala eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea.
- Konpetentzia orokorrak:

- Dagokion espezializazioko materietako curriculumaren arabera edukiak ezagutzea eta, orobat, ikaste-irakaste prozesuei buruzko ezagutza didaktikoak. Lanbide Heziketarako, oster, eskatuko da dagokion lanbidearen ezagutza.
- Informazioa (ahozkoa, inprimatutakoa, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia) bilatzea, lortzea, prozesatzea eta komunikatzea; informazio hori ezagutza bihurtzea eta ikaste-irakaste prozesuetan espezializazioari dagozkion materietan aplikatzea.
- Estrategiak eskuratzea ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko, eta, orobat, pentsatzeko eta erabakitze trebetasunak garatzeko; horretarako, haren autonomia, konfiantza eta iniziatiba sendotuko dira.
- Konpetentzia espezifikoak:
 - CE1573 - Espezializazioari dagozkion ikasgaien plangintzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan esperientzia hartzea.
 - CE1506 - Hezkuntza-materialen, -egoeren eta -testuinguruen proposamenak aztertzea, lantzea eta berrikustea, faktore eta prozesu horiek eta ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren egungo teoriak ezagututa.
 - 24170 Bigarren hezkuntzan ekonomian indarrean dauden curriculum-proposamenak ezagutzea.
 - 24171 Bigarren hezkuntzan ekonomiari garrantzia emateko gai izatea.
 - 2473 Ekonomia egungo gizartea kritikoki aztertze eta ulertze beharrezko tresna gisa hartze gai izatea.
 - 24175 Ebaluazio-estrategiak eta -teknikak ezagutzea, eta ebaluazioa ekonomiaren ikasketa prozesua sustatzeko tresna gisa ulertzea.

4. Ikas-eraketak

1. Derrigorrezko eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko Ekonomiarako indarrean dauden curriculum-proposamenak ezagutzen dituzte ikasleek.
2. Ikasleek ikasgaiaren curriculum-edukiak erabiltzen edo aplikatzen diren testuinguruak eta egoerak ezagutuko dituzte.
3. Ikasleek ekonomiari buruz eskaini berri diren historia, garapenak eta ikuspegiak ezagutzen dituzte, eta ekonomiaren ikuspegi dinamikoa eskaintzeko gai dira.
4. Ikasleek diziplinaren kontzeptu-, zientzia- eta metodologia-oinarriak eta baliabide didaktikoak dituzte, eta, horretarako, IKTen erabilera integratzen dute eta metodologia aktiboak erabiltzen dituzte, Derrigorrezko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo hezkuntzan ekonomiaren eta enpresaren berariazko curriculum-edukiei erantzuteko.
5. Ikasleek ekonomiaren egungo errealitatea azaltzen duen dimentsioa ulertzen dute, bai ikuspegi globaletik, bai eguneroko errealitatetik. Lanbide-heziketaren kasuan, ezagutzen dituzte lan-munduen bilakaera, gizartearen, lanaren eta bizi-kalitatearen arteko elkarreragina, bai eta

lanbideek eska ditzaketen aldaketa eta eraldaketetara egokitzeko prestakuntza egokia eskuratzeko beharra ere.

6. Ikasleek ebaluazio-estrategiak eta -teknikak ezagutzen dituzte, eta ebaluazioa ekonomia aztertzeko ahalegina erregulatzeko eta sustatzeko tresna gisa ulertzen dute.

5. Edukiak

1. EKONOMIA GIZARTE-ZIENTZIA GISA ETA HAREN IRAKASKUNTZAREN ARRAZOIAK Ekonomiak gaur egungo prozesu sozialen azterketan duen garrantzia. Ekonomiak eguneroko bizitzan duen garrantzia. Ekonomiak gaur egun duen zeregina curriculumean bigarren hezkuntzan
2. EKONOMIA METODOLOGIA AKTIBOEN BIDEZ IKASTEA Ekonomia irakasteko ikuspegi aktiboak, arazoak konponduz edo proiektuak eginez. Ikasleen edo irakasleen irakaskuntza-gidak egitea, ikuspegi horietan oinarrituta.
3. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA -TEKNIKAK Nola ebaluatu edukiak eta gaitasunak proiektuetan. IKTen eta lankidetzatresnen erabilera proiektuetan eta ebaluazioan
4. EKINTZAILTZA ETA EKIMENA Ikasleen ekintzailtza- eta ekimen-gaitasuna garatzea, proiektuen eta beste metodologia aktibo batzuen bidez.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

Bandres, L. eta Busturia, K. (1980). *Ekonomiaren hastapenak*. Bilbo: UEU. <<https://labur.eus/ehQPd>>

Chica Y. (2011). ¿Kukuxu ¿qué?: Emprendedores contra corriente. IKD baliabideak 1.
<http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/chica-04-2011.htm>

Escribano, A. y Del Valle, A. (eds) (2010): *El Aprendizaje basado en problemas: una propuesta metodológica en educación superior*. Narcea.

Malagon E. (2011). La Balanza de Pagos: ¿Puede un país importar indefinidamente más de lo que exporta?. IKD baliabideak 1. <http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/malagon-04-2011.htm>

Osterwalder, A. (2011): Generación de modelos de negocio. Planeta.

Samuelson, P.A. y Nordhaus, W.D. (2006): Economía. 18ª Edición. McGraw- Hill/Interamericana de España.

Samuelson, P.A. y Nordhaus, W.D. (1999): Ekonomia. UPV/EHU.

Etxano, I. (2015). *Ekonomia eta Iraunkortasuna: oinarriak eta aplikazioak*. Bilbo: UEU.
<<https://labur.eus/e1LR7>>

Hainbat egile. (2008). La enseñanza de una ciencia social: la economía (monografikoa). *Íber, didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* (58). Graó argitaretxea.

Hainbat egile. (2019). Didáctica de la economía (monografikoa). *Íber, didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* (94). Graó argitaretxea.

Heras, I. (2004). *Enpresaren ekonomia eta zuzendaritza. Teoria eta praktika*. Bilbo: UEU.
<<https://labur.eus/O45Kh>>

Jubeto, Y., Zurbano, M. eta Mariliz, S. (2002). *Euskal Herriko Ekonomia*. Bilbo: UEU. <<https://labur.eus/olvva>>

Mendizabal, A. eta Errasti, A. (koord.). (2004). *Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean*. Bilbo: UEU.
<<https://labur.eus/qPHWc>>

Tobar Arbulu, J.F. (2013). *Diru Teoria Modernoa eta finantza-ingeniaritza*. Bilbo: UEU.
<<https://labur.eus/0lDMr>>

Travé, G., Molina, J.A. eta Delval, J. (2018). *Enseñar y aprender economía en educación secundaria*. Madrid: Editorial Síntesis.

Zurbano, M. (1989). *Makroekonomia I*. Bilbo: UEU. <<https://labur.eus/RnAuD>>

Zurbano, M. (1993). *Mikroekonomia I* (2. argitalpena). Bilbo: UEU. <<https://labur.eus/u9UdG>>

Zurbano, M. Eta beste (2008). *Ekonomia globala. Gizarte globalerako oinarri berriak*. Bilbo: UEU.
<<https://labur.eus/PB6p4>>